



ARABAKO
UNIBERTSITATE
OSPITALEKO
**XIV IKERKUNTZA
JARDUNALDIAK**

**XIV JORNADAS DE
INVESTIGACIÓN
DEL HOSPITAL
UNIVERSITARIO
ARABA**

AUOko IKERKUNTZA SARIAK (2013)

Oinarri orokorrak

1. HELBURUA

AUOko ikerkuntza-sarien helburua da herritarren osasuna eta bizitza-kalitatea hobetzeko lan egiten duten pertsonak eta erakundeak aintzatestea —ez bakarrik lan zientifikoa egiten dutenak edo laguntza ematen dutenak, bai eta gizarteari onura ekartzen diotenak ere— eta haien lana sustatzea. Urtero banatzen dira sariak.

2. HAUTAGAIAK

- Eskaera-motak edo kategoriak:
 - Egindako ikerketa-lanak: artikulua, posterrak, eta ahozko komunikazioak.
 - Ikertzaile hasiberriak.
 - Talde berritzailea.
- Hautagaitzak aurkezteko baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta ebaluazio-irizpideak oinarri hauetan bertan azaltzen dira, kategoria bakoitzari dagokion atalean.
- Aurreko sariketetan saria jasotakoek bi urte itxaron behar dute berriz beren hautagaitza aurkeztu aurretik (ikertzaile gaztearen kategorian bakarrik).
- Ikerkuntza-sarietako modalitate bakarrean aurkeztu daiteke lan bakoitza.

3. SARIAK:

Lau modalitate daude:

- A. Estatuko artikulurik onena, IMEren arabera
- B. Nazioarteko artikulurik onena, Science Citation Indexen arabera (SCI)
- C. Ikertzaile hasiberri onena
- D. Talde berritzaile onena

Kategoria bakoitzeko lan finalistak, bai eta poster eta/edo komunikazio onena ere, ohorezkoak dira, eta AUOko ikerkuntza-sarien oroitzapenezko akreditazio bat jasoko dute.

Sariak jasotzeko, sariak emateko ekitaldira joan behar dute hautagaiek, edo taldeko kideren batek. Ekitaldi hori Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitzako ekitaldi-aretoan egingo da, 2013ko azaroaren 27an (asteazkena).

4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Hautagaitzak aurkezteko epea 2013ko IRAILAREN 9tik 29ra izango da. Haiek **soilik** aurkez daitezke BIOARABA web orrialden eskuragarri dagoen aplikazioa erabiliz: <http://bioaraba.org/jornadas-de-investigacion/presentar-candidatura/>.

Hautagaitzak ondo bidali ahal izateko, posta elektronikoko bidez emango diren erabiltzaile eta pasahitzarekin erregistratu beharko dira. Erabiltzaileen sarrera orrialdearen bukaeran dago, jarraian erakusten den bezalaxe:

Presentar candidaturas

Tweet

Haz click en el tipo de presentación a la cual vas a presentar tu candidatura. Si tiene cualquier problema, puede ponerse en contacto con la Unidad de Investigación de Álava: unidadinvestigacion.hospitaltxagorritxu@osakidetza.net - Teléfono: 945007413

Presentar un Artículo	Presentar una comunicación oral	Presentar un póster	Presentar candidatura a Investigador emergente	Presentar candidatura a Grupo Innovador
-----------------------	---------------------------------	---------------------	--	---

Acceso usuarios registrados

Nombre de Usuario:

Contraseña:

Recordarme

Acceder →

Últimas noticias

La Unidad Funcional del Sueño y Bioaraba

Valores

Diario de Noticias de Álava (12-03-2012)

5. BALORAZIO-BATZORDEA

- AUOko ikerkuntza-batzordeko kideek nahiz haiek izendatutako beste batzuek osatuko dute batzordea.
- Epaimahaiak erabaki dezake saria ez ematea, hautagaiek ez dutela behar adina meritu iritzita.
- Epaimahaiaren esku dago, halaber, kategoria bakoitzeko eskakizun eta baldintzetara egokitzen ez diren hautagaitzak atzera botatzea.

Oinarri espezifikoak

6. IKERKETA-LANAK

BALDINTZAK

OSAKIDETZAKO Arabako zentroetako langileek 2012ko irailaren 1etik 2013ko irailaren 1era bitartean aurkeztutako/argitaratutako lanak (artikuluak, ahozko komunikazioak edo posterrak). Artikuluen kasuan, online argitaratutako data onartuko da.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO/ESKABIDEA BIDALTZEKO PROZEDURA

Kasu bakoitzari dagokion formularioa beteko da, <http://bioaraba.org/jornadas-de-investigacion/presentar-candidatura/>. gunean eskuragarri dagoen aplikazioaren bidez. Gainera, artikuluaren eta posterren kasuan, dagokion artxiboa ere bidali behar da (.pdf, .doc, .docx edo .ppt formatuan).

Formulario horretan, informazio hau jaso behar da:

- Aurkezpen-mota: artikulua, posterra edo ahozko komunikazioa.
- Izenburua, egileak, parte hartu duten zerbitzuak, eta harremanetarako pertsonaren izen-abizenak eta helbide elektronikoa.
- Laburpena (250 hitz): sarrera, helburuak, materiala eta metodoak, emaitzak eta ondorioak.
- Aldizkariaren erreferentzia osoa (artikuluetarako).
- Kongresuaren izena, tokia eta aurkezpen-data (posterren eta ahozko komunikazioen kasuan).

Aurkeztutako lan guztiak AUOko bi egoitzetako sarrera nagusian egongo dira ikusgai, irailaren 7tik 28ra.

EBALUAZIOA

Aurkezpen-epea amaituta, balorazio bat egingo du epaimahaiak, ebaluazio-irizpide hauetan oinarrituta:

- Egilea
- Zein aldizkaritan argitaratu den (artikuluaren kasuan bakarrik)
- Ikerketa-mota
- Egokitasuna
- Metodologiaren kalitatea
- Aplikazio praktikoetara transferitzeko aukera.

7. IKERTZAILE HASIBERRIA

BALDINTZAK

- Biomedikuntzaren arloan, hauek aurkeztu daitezke ikertzaile hasiberriaren sarira:
 - 40 urteko edo gutxiagoko ikertzaileak.
 - Gaur egun Arabako edozein zentrotan ikerkuntzan ari direnak.
 - Aktibo jarraitzen dutenak.
- Arabako osasun-sareko zentro guztiek aurkeztu ditzakete hautagaiak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA ESKABIDEA BIDALTZEKO PROZEDURA

<http://bioaraba.org/jornadas-de-investigacion/presentar-candidatura/> gunean eskuragarri dagoen aplikazioaren bidez bete daiteke formularioa.

Formulario horretan, informazio hau jaso behar da:

- Formazio akademikoa, hauek zehaztuz:
 - Lizentziatura, zentroa eta data.
 - Doktoretza, zentroa eta data.
- Azken sei urteetan argitaratutako zientzia-artikuluak. Hauek adierazi behar dira:
 - Azken sei urteetan argitaratuak bakarrik, ordena kronologikoaren arabera.
 - Ez sartu liburuko kapitulurik, laburpenik eta kongresuetarako txostenik.
 - Eskema honen arabera eman erreferentzia: egileak (sinaduraren ordenaren arabera); izenburua; aldizkaria; bolumena; orrialdeak.
 - Inpaktu-faktorea eta kuartila (JCRkoa, azken urtean eguneratutakoa).
- Agentzia publiko edo pribatuek finantzaturik, azken sei urteetan parte hartu duen eta bukatu diren edo martxan dauden proiektuen zerrenda (EAEko, estatuko edo nazioarteko lehia-prozeduren bidez lortuak). Datu hauen berri eman beharko da:
 - Izenburua
 - Ikertzailearen kategoria Ikertzaile nagusia edo laguntzailea den.
 - Finantza-entitatea eta proiektu bakoitzerako lortutako diru-laguntza.
 - Proiektuaren iraupena
- Irakaskuntza-gaitasuna:
 - Azken sei urteetan zuzendutako masterren edo doktoretza-tesien zerrenda. Hauek zehaztu behar dira: doktoregaia; izenburua; urtea; unibertsitatea/erakundea.
 - Azken sei urteetan estatuko edo nazioarteko deialdietan taldeko buru gisa lortutako giza baliabideen zerrenda. Hauek zehaztu behar dira: programa (adibidez, Ramón y Cajal; Miguel Servet; Rio Hortega; Marie Curie...); kontratatutako ikertzailea; finantza-erakundea; iraupena (noiztik noiz arte).

- Azken sei urteetan hautagaiak parte hartu duen patenteen zerrenda. Hauek zehaztu behar dira: izenburua; asmatzaileak; patente-bulegoa; eskaera-zenbakia; emakida-zenbakia; entitate titularra; ustiatzen duen entitatea.

EBALUAZIOA

Aurkezpen-epea amaituta, balorazio bat egingo du epaimahaiak, ebaluazio-irizpide hauetan oinarrituta:

- Egindako ikerketaren kalitatea (aldizkarietako inpaktu-faktorea eta kuartila).
- Ikerketa-proiektu publiko eta pribatuak.
- Biomedikuntzako ikerketa-lerroarekiko leialtasuna.
- Ikerketaren interesa eta erabilgarritasuna.

8. TALDE BERRITZAILEA

BALDINTZAK

2012-2013 ikasturtean berrikuntza-jardueretan eta/edo ezagutza-transferentzian parte hartu duten Osakidetzako Arabako Langile sanitarioek nahiz ez-sanitarioek jaso ahal izango dute saria.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA/ESKABIDEA BIDALTZEKO PROZEDURA

<http://bioaraba.org/jornadas-de-investigacion/presentar-candidatura/> gunean eskuragarri dagoen aplikazioaren bidez bete daiteke formularioa.

Gainera, memoria labur bat aurkeztu behar dute, egindako jardueraren berri emanez (aplikazioan erantsi beharko dute memoria). Memorian, atal hauek sartu behar dira: helburuak, garapena eta emaitzak. Gehienez hiru orri izan behar ditu memoriak (.doc, .docx o .pdf formatuetan).

EBALUAZIOA

Hautaketa egiteko, alderdi hauetan lortutako helburuak hartuko dira kontuan:

- Profesionalen eta pazienteen parte-hartzea hobetzekoa izatea.
- Beste erakunde batzuetara transferitzeko modukoa izatea.
- Aplikazio-metodologia eskura izatea eta erreproduzitzeko modukoa izatea.
- Erakundearen duen eragina: praktika klinikoaren hobekuntza, informazio-sistemen hobekuntza, baliabideen egokitzapena eta mailen arteko koordinazioa.
- Pazientearengan duen zuzeneko eragina (segurtasuna, gogobetetzea, bizitza-kalitatea...).